

Kutxabankek Hipólito Suárez kontseilari independente izendatu du

- Akziodunen Batzorde Nagusiak onartu du hautaketa, EBZ-k ikuskatu ondoren
- Ia 30 urteko ibilbide profesionala du, beti nazioarteko enpresetako zuzendaritza eta goi-mailako ardurekin

2021ko apirilaren 12an. Kutxabankeko Akziodunen Batzorde Nagusiak Hipólito Suárez Gutiérrez kontseilari independente izendatu du, Administrazio Kontseiluak proposatuta.

Kutxabankeko Administrazio Kontseilua 2 kontseilari exekutibok (Presidenteak eta Kontseilari Delegatuak), 6 independentek eta 8 dominikalek osatuta jarraituko du, guztiak Bankuaren akziodun diren BBK, Kutxa eta Vital Banka-Fundazioek proposatu ondoren izendatutakoak.

Deustuko Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziatua da Hipólito Suárez Gutiérrez, eta ia 30 urteko ibilbide profesionala du nazioarteko enpresetako zuzendaritza eta goi-mailako arduran. Besteak beste Zuzendari Nagusia izan da Enhol Taldean, Siemens Gamesan (Mexikon eta Latinoamerikan Zuzendari Nagusia), eta Aernnova Aerospace Corporation, S.A.-n Zuzendari Korporatiboa eta Administrazio Kontseiluko Idazkari Nagusia da. Velatia Taldeko kontseilari independentea eta CONFEBASK eta Tecnalía Fundazioko Batzorde Eragileetako kidea ere bada. Gainera, Uría Menendezeko merkataritza alorreko bazkidea izan da, eta irakaslea Deustuko Unibertsitatean, enpresen aholkularitza juridikoko Masterrean.

Hipólito Suárezek zibersegurtasunarekin, arriskuen-kudeaketarekin, gobernu-korporatiboarekin eta 'ESG' gaiekin lotutako zereginak izan ditu, gai erabakigarriak guztiak finantza-erakundeen alorrean.